# Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseilua



## Ijito Herriarekiko Euskal Estrategia

PERTSONA HELBURU
EUSKO JAURLARITZA

COMPROMISO CON LAS PERSONAS
GOBIERNO VASCO

## ERREFERENTZIAKO ARAU-ESPARRU

### Europan:

- Ijito herritarrak integratzeko estrategia nazionalen Europako Esparrua, 2020 arte.
    - EUROPA 2020: Hazkuntza zentzudun iraunkor eta integratzailerako estrategia

### Estatuan:

- Espainiako Ijito Herritarrak Gizarteratzeko Estrategia Nazionala (2012-2020)

    Ijito Herriaren Estatuko Kontseilua (891/2005 Errege Dekretua)

### Autonomia Erkidegoan:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseilua 289/2003 DEKRETUA.

PERTSONA HELBURU
COMPROMISO CON LAS PERSONAS
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

# EGITURA ETA EUSKARRIA:

- **Partaidetzaren eta lankidetza instituzional eta sozialaren sustapena:**
  - Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseilua
    - Kontseiluaren Osokoa: Administrazio publikoak (Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak, udalak) + ijitoen GKEak eta ijitoen aldekoak
    - Batzorde Iraunkorra
    - Lan-batzordeak:
      - Ijitoen Elkarteen Batzordea
      - Emakume Ijitoen Batzordea (kontseiluaren osokoan onartu zain)
      - Beste batzuk
- **Jarduerak garatu eta dinamizatzea, laguntza teknikoa eta euskarria:**
  - Kontseiluaren Idazkaritza Teknikoa
- **Planak:**
  - Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Euskal Plana (2004-2007)
  - Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako II. Euskal Plana (2008-2011)
  - Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako II. Euskal Plana. 2012-2013ko luzapena
  - Ikasle ijitoen eskolatzea hobetzeko plana (2012-2015)

# Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako II. Euskal Plana.

## 1. IJITOEN BIZI-KALITATEA HOBETZEA

Ijitoek baliabideak, zerbitzuak eta aukerak baliatzeko eta horietan erabat txertatzeko bidea hobetzea; horri esker, ijito-komunitateak abiapuntutik bertatik gainerako herritarrekiko dituen desberdintasunak gaindituko dira, eta hori eragozten duten oztopoak kenduko.

## 2. IJITOEN PARTE-HARTZE SOZIALA

Ijitoen partaidetza soziala erraztea, bizitza publikoaren eremu guztietan.

## 3. BIZIKIDETZA ETA IJITO KULTURARI BURUZKO JAKINTZA HOBETZEA.

Ijito herriaren kulturari eta historiari buruzko jakintza eta ijito-nortasunaren onarpena areagotzen laguntzea, kultura arteko bizikidetza hobetzeko gakoak diren aldetik.

# Ijito Herriarekiko Euskal Estrategia.

PERTSONA HELBURU
COMPROMISO CON LAS PERSONAS
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# 1. IJITOEN BIZI-KALITATEA HOBETZEA

## 1. IJITOEN BIZI-KALITATEA HOBETZEA

1. Ijito ikasleen **eskolatzea** hobetzea, eskola inklusibo baten barruan.

   Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

2. **Genero-indarkeria**ren egoerak prebenitzea, eta artatzea —halakorik balego—, emakume ijitoen artean.

   Emakunde

3. Ijito helduen **enplegagarritasuna eta lan-merkaturako sarbidea hobetzeko** zerbitzuen sarea finkatzea, LANBIDE-Enplegurako Zerbitzu Publikoarekin koordinazio-mekanismoak ezarriz.

   Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

4. **Osasuna sustatzeko programa** bat diseinatzea, garatzea eta ebaluatzea. Programa horretan, osasun komunitate-eragile baten figura sortzea jasoko da.

   Osasun Saila

5. Titulartasun publikoko **etxebizitzak lortzeko** sistema, premiazko egoera bereziei erantzun ahal izateko.

   Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

6. **Justizia Administrazioa**rekiko lankidetza, kultura-gakoak kausetan eta/edo esku-hartzeetan kontuan hartzekoak direnean.

   Herri Administrazio eta Justizia Saila

## 1 IJITOEN BIZI-KALITATEA HOBETZEA (jarraipena)

7. **Ijitoekin lan egiten duten erantzukizun publikoko zerbitzuen profesional guztiak egungo errealitatera eta ijito-kulturara hurbiltzea**, aurreiritziak eta estereotipoak gainditzen aurrera egiteko, eta ijitoekiko harremanak eta, horrenbestez, zerbitzuen kalitatea hobetzen jarraitzeko.
8. Ijitoen Plan eta Kontseiluari lotutako eragileekin lankidetzan, prozedura batzuk ezartzea honako hauen segimendua eta zabalkundea egiteko: estrategia horri dagokionez EAEn egindako **jarduerena, praktika egoki interesgarriena eta jakintza eta praktika hobetzen laguntzen duen beste edozein informazio osagarrirena**.

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

• Kontseiluaren Idazkaritza Teknikoa, BILTZEN Integrazioko eta Kultura arteko Bizikidetzarako Zerbitzukoa.
• Jarduera pilotuak bultzatzea Astigarragan Errumaniako ijitoen (familien) kokalekuan egindako esku-hartzea
• Jarduera estrategikoetarako diru-laguntzen euskarria finkatzea
•*2014:* 45499/028/4: Laguntzen deialdia: elkartegintza sendotzeko ildoa: 644.000 €

***2014:***

• Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Praktika Egokien Gidaliburua
• Ijito komunitatea gizarteratzeko politikak berrikusteari buruzko jardunaldia

# 2. IJITOEN PARTAIDETZA SOZIALA

## 2. IJITOEN PARTAIDETZA SOZIALA

9. Sustapena eta laguntza teknikoa, **Ijitoen GKEek eta ijitoen aldekoek ijito komunitateari eragiten dioten gaiak lantzen dituzten aholku- eta lankidetza-guneetan parte har dezaten** (foroetan eta sareetan).

10. **Ijitoen eta ijitoen aldeko erakundeetako profesionalen eta boluntarioen gaikuntza hobetzea**; horretarako, prestakuntza-premiei buruzko diagnostiko bat eta prestakuntza-plan bat egingo dute elkarrekin.

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

**2014:**

- Ijitoen eta ijitoen aldeko EAEko erakunde sozialetako profesionalen eta boluntarioen prestakuntza-beharrei buruzko diagnostikoa eta horien gaikuntza hobetzeko programa

9. Laguntzea, batetik, bai **emakume ijitoak**, bai emakume horiek egindako lana ikusarazten eta aintzatesten –euren burua aldatzeko bultzada gisa–, eta, bestetik, haien komunitatea garatzen.

Emakunde

# 3. BIZIKIDETZA ETA IJITO KULTURARI BURUZKO JAKINTZA HOBETZEA.

## 3. BIZIKIDETZA ETA IJITO KULTURARI BURUZKO JAKINTZA HOBETZEA.

12. Ospakizuna: **azaroaren 16a, Ijito Herriaren Eguna Euskadin**

13. **Komunikabideekin eta komunikabideetako profesionalekin lankidetzan aritzea**, sentsibilizazio- eta lankidetza-formulak zehazteko, bai eta erreklamatzeko eta salatzeko formulak ere, hala behar denean.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

14. **IKTen eta sare sozialen erabilera** sustatzea, tresna egoki diren aldetik bai EAEko ijito-komunitateari buruz eta antzeko gaiei buruz informazio garrantzitsua zabaltzeko, bai gai horien gainean sentsibilizatzeko.

15. **Diskriminazioa**ren, prebentzioaren eta **tratu-berdintasuna**ren arloan jarduteko tresnak eta prozedurak ezartzea; diskriminazio-egoera zehatzen aurrean erantzuteko sistemak.

Herri Administrazio eta Justizia Saila

Segurtasun Saila

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

***2014:***

- EAEko Ijito Herriaren Eguna ospatzeari lotutako jarduerak.
- Sentsibilizazio-ekintzak, EAEko komunikabideekin eta profesionalekin.
- Ijitoen GKEei eta ijitoen aldekoei prestakuntza eta euskarria ematea, IKTak eta sare sozialak erabil ditzaten.
- Arraza edo etniagatik ez diskriminatzearen eta berdin tratatzearen arloan jarduteko ildoa (Immigrazioari buruzko Euskal Estrategiari lotua)